

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**LIZARTZAKO UDALA**

*Lizartzako Herri Bide Publikoen Inbentarioaren informazio publikoa.*

Lizartzako Udalak Herri Bide Publikoen Inbentarioa egiteko erabakia hartu zuen, udal honen ondasunen inbentarioa osatzeko eta herri-jabariko ondasun higiezin guztiak Ondasunen Inbentarioan sartzeko xedez, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 Errege Dekretuaren Bigarren Xedapen iragankorrak jasotzen duen bezala.

2022ko irailaren 26an egindako Ohiko Osoko Bilkuran honako hau erabaki zen:

– Lizartzako Herri Bide Publikoen Inbentarioari hasierako onarpena ematea.

Halaber, eta erabakitakoa beteaz, hasierako onespeneko Dokumentua jendaurrean jartzea, 3 hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Bitarte horretan edonork dokumentua aztertu ahal izango du eta egokitzat jotzen dituen alegazioak egin.

Lizartza, 2022ko irailaren 27a.—Iñaki Azpiroz Beldarrain, alkatea. (6031)

**AYUNTAMIENTO DE LIZARTZA**

*Información pública del Inventario de Caminos Públicos de Lizartza.*

El Ayuntamiento de Lizartza acordó realizar el Inventario de Caminos Públicos de Lizartza, con el fin de completar el Inventario de Bienes de este Ayuntamiento e incluir en el mismo todos los bienes inmuebles de carácter demanial, tal como recoge la Disposición Transitoria Segunda del Real Decreto 1372/1986 por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

En sesión plenaria ordinaria celebrada el día 26 de septiembre de 2022, acordó lo siguiente:

– Aprobar con carácter inicial el documento Inventario de Caminos Públicos.

Asimismo, y dando cumplimiento a dicho acuerdo se somete el documento de aprobación inicial a información pública por plazo de 3 meses, contados a partir del día siguiente al de la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, durante el cual podrá ser examinado por cualquier interesado y formular las alegaciones que se estime pertinentes.

Lizartza, a 27 de septiembre de 2022.—El alcalde, Iñaki Azpiroz Beldarrain. (6031)